

GAURKO EGITARAUA

ARRIAGA ANTZOKIA

10:00: Zineskola: 'Ice age'
17:30-20:00-22:30: Nazioarteko lehiaketa
22:30: Egile zinema: 'Balseros' (Espainiako dokumentala)

GUGGENHEIM MUSEOA

16:30: Roberto Rossellini zikloa: 'India'
19:00: Roberto Rossellini zikloa: 'Blaise Pascal'
21:30: Egile zinema: 'Porto alegre' (Ettore Scola / Francesco Maselli)

MULTICINES-8 ARETOAK

17:30: Japoniako animazio zinema
20:00: San Antonio de los Baños (Kuba) zinema eskolako lanak
22:30: Espainiako zinema gaur egun

ARTE EDER MUSEOA

16:00: Pawel Pawlikowski zikloa: 'Serbian epics', 'Travels with Zhirinovski'
18:00: Women make movies: 'Divorce Iranian style'
20:00: Hondamendia eta ikuskizuna zikloa: 'Death on the screen' atalaren barruan, zazpi zuzendariren lanak

BILBOROCK

21:00: Bideo musikaren kultura: 'Music videos director on focus: Michel Gondry'

BIDARTE JAUREGIA

19:30: Film laburren inguruko mahaingurua. Partaideak: Ricardo Elorza, Iñaki Gomez, Carlos Juarez, Gorka Agirre eta Ignacio Casado

LABURREAN

MUSIKA

Xabier Erkizia nafarrak Ultrasound jaialdian parte hartuko du ostiralean, Ingalaterran



J.C. RUIZ / ARGAZKI PRESS
Xabier Erkizia.

Asteburu honetan Ingalaterrako Huddersfield hirian egingo den musika esperimentaleko Ultrasound jaialdian parte hartuko du Xabier Erkizia musikari beratarrak. Erki-ziak ostiral iluntzean eskainiko du bere saioa, Black Factionen ondoren eta Powerbooks 4 Peace, Golan Levin, Nullpointer eta V3ctor DJ's-en aurretik. Teknologia berrie-kin musika sortzen duten hainbat artista bilduko ditu Ultrasound jaialdiak. Erkizia artista multidiziplinarra da, musikan ez ezik argazkigintzan, bideogintzan, marrazkigintzan eta diseinugintzan ere aritzen baita. Halaber, Ertz jaialdiaren antolatzailea da.

MUSIKA

Lehen aldiz emakume batek zuzenduko du Bilboko Musika Banda, abenduaren 1ean

Maite Aurrekoetxeak zuzenduko du Bilboko Musika Banda, abenduaren 1ean Arenalean eskainiko duen emanaldian. Banda orain dela 107 urte sortu zen, eta aruten emakumezko batek zuzenduko du lehen aldiz. Aurrekoetxeak (Bilbo, 1971) curriculum zabala du, akordeoiko goi mailako titulua du, Zigor eta Zigor Txiki abesbatzak zuzendu ditu, eta Jesus Guridi orkestrako zuzendaria izan da.

ANTZERKIA

Bilboko Ayala antzokia zinema areto bihurtuko da, Udalaren diru laguntzarik ezean

Bilboko Ayala antzokia zinema areto komertziala izango da hurrengo hiletik aurrera, baldin eta Udalak haren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko plan bat martxan jartzen ez badu. Hala adierazi du Javier Ugalde Ayala antzoki-ko zuzendari eta gerenteak. PPK ekimen bat aurkeztu du udal bilkuran eztabaidatzeko. Dioenez, Ayala itxetak «Bilboren aniztasun kulturalari kalte egingo lioke».

ZINEMA

Joaquin Romeroren 'I sette del Texas' filma emango dute gaur Donostiako Antzoki Zaharrean

Euskadiko Filmategiak eta Donostiako Kulturak antolatzen duten Nosferatu programazioaren barruan, —Eurowestern-ari eskainia da oraingo zikloa— 1964an Joaquín Romerok zuzendutako *I sette del Texas* filma emango dute gaur Donostiako Antzoki Zaharrean, 20:15ean hasita. Zenbait zinema kritikarik diotenez, eurowestern-a, azpigeno gisa, ez ei da hasi Leonoren *Dolarren Trilogia*-n, Joaquín Romerok 1955ean egin zituen *El coyote* eta *La Justicia del Coyote* filmetan baizik. Romerok genero horretan egindako filmik onena da gaur Antzoki Zaharrean ikusi ahal izango dena. Mexikar etxaldetar batek eginiko bidaia kontatzen du.

KRITIKA MUSIKA

Joseba Martín

Sasoi onean

Los Secretos

Lekua: Bilboko Euskalduna jauregia.
Eguna: Azaroak 22.

Sarrerak astebete bat lehenago agortu ziren, eta hiru egun lehenago Madrilgo taldeak *Solo para escuchar* lan berria kaleratu zuen. Beraz, izugarrizko interesea antzematen zen Euskaldunan, entzule gazte eta berri ugariri esker. Boskotea, entzuleriak amore emanda, lasai hasi zen kantuak dosifikatuz. Ekitaldia, azken hiru urteotan bezala, Enrique Urquijo zenari dedikatu zioten. Hasierako bi kantuak berriak ziren (*Cada día* eta *Esta prohibido llorar*), baina berehala kantu ezagunetara jo zuten: *A tu lado*, *Quiero beber hasta perder el control* (country rock moduan, Gram Parsons bidetik), *Y no amanece*, *No me imagino*, *Cam-bio de planes*...

Soinu bikaina lortu zuten madrildarrek: dena primeran entzuten zen, bai Alvaroren hama-bi sokako akustikoa, bai ahoko harmoniak, eta nola ez, Ramon Arroyoren gitarra miragarriak. Lan handia egin dute Los Secretosek antzinako kantuak birmoldatzeko: *Buena chica*, *Déjame* edo *Ojos de perdida*-n konponketa berriak sortu dituzte originalen airea mantenduz. Eta kantu berriek antzinako aire hori hartzen dute berehala.

Entzuleak zoriontsu

Jendea gustura egon zen eta kantuen artean nola edo hala aditzera eman zuen. Txaloak beroak izan ziren ere Alvarok Enrique anaiari *Te he echado de menos* kantatu zionean. Esan bezala, entzule ugari gazte eta berriak ziren Musiketako ziklo honetan, baina atzeko partean adineko jarraitzaile mordo bat ikusi genuen ere. Guztiok atera ginen zoriontsu ia 25 urte bidean egondako banda oso eta sendo bat ikusi eta entzun ondoren.

Hego Amerika zinemaren loriara eraman zuen eskolaren historia

ZINEBIk San Antonio de los Bañosko zinema eskolari buruzko zikloa antolatu du

E. Ezkerra | BILBO

«Monasterioa deitzen diote San Antonio de los Bañosko Zinema eta Telebistari, eta ezin hobeto datorkio izen hori. Gertuen duen herria zortzi kilometro dago, eta *isolamendu* horrek, nolabait, gune magiko bihurtu du zentroa. Beste mundu batean sartzea bezalakoa da». Hamabost urte bete ostean, Hego Amerikako zinemagintzan erreferente den erakundea inoiz baino hobeto dagoela dio haren zuzendariorde Tito Ameijeirasek. Denbora horretan 500 ikasletik gora lizentziatu dira, haien artean Benito Zambrano eta ZINEBIko epaimahaikide Wolney Oliveira. «Egonkortasun maila batera iritsi garela esan daiteke. Zuzendari berria dugu —Kubako Zinema Institutua eratu zuen Julio Gracia Espinosa—, eta erritmo gaztea ekarri dio erakundeari. Pentsa, batzuek diote 65 urteko gaztea daukagula zuzendari!», azaldu du Ameijeirasek.

Ez dago krisirik, beraz, komunikabide batzuek bere garaian esan zutenaren kontra. «Herrialdearen ekonomiarekin lotura estua du eskolak. Lehengoa ondo badabil, eskola ere bai, eta alderantziz. Azken finean, gobernuaren inbertsioetatik bizi gara. Badira kanpoko zenbait erakunde pribatu diruz laguntzen gaituztenak, eta horrekin

guztiarekin egiten dugu aurrea». Alegia, ez dira oparotasunean bizi, baina ezta eskasian ere. «Duela gutxi baliabide ekonomikorik gabeko herrialdeei begira genituen bekak berreskuratu ditugu. Suitzarekin lorturiko hitzarmen baten bidez, garai batean bezala, gure artean Afrikako gazteak izango ditugu geurekin ikasten».

Ameijeirasek San Antoniok Hego Amerikako zinemagintzari eman dion bizitasunaz hitz egin nahi du, lan merkatuan berehala sartu diren zuzendari gazteen trebakuntza prozesua azaldu. «Gure eskola ez da eskolastikoa. Trebakuntza kritiko eta teorikoari arreta berezia eskaintzen diogun arren, benetako teoria praktikaren bidez irakasten dugu. Gazteek filmak eginez ikasten dute. Hain zuzen, eskolan sartu eta lehen betebeharra film bat osatzea da. Eta graduatzen direnean ere lan bat aurkeztu behar dute».

«Zinema kubatarrari berari on egin dio eskolak. Herrialdean bertan ikusia izateko zinema egiten da, eta egoera ezin hobean dago. Aurten zazpi film estreinatu dira. Baina garrantzitsuena zera da: belaunaldien artean ez dela etenik izango».

Urte hauetan egindako lana omentzeko, ZINEBI San Antonio de los Bañosen egindako filmak eskaintzen ari da.

IRAGARKI MERKEAK ☎ 943 300 222

33 x 33 mm

33 x 33 mm

33 x 33
MODULO
(Araba-Nafarroa)

Eguna: 14 €
Astea (6 egun): 12 €
2 aste (12 egun): 10 €
Hilabetea: (24 egun): 8 €

33 x 33 mm
MODULO
(Iparralde)

Eguna: 14 €
Astea (6 egun): 12 €
2 aste (12 egun): 10 €
Hilabetea: (24 egun): 8 €

**BIDEO KOPIAK
BIDEOGINTZA
LEHIZE EKOIZPENAK**

IRRATIRAKO KUNAK ETA SOINUKETAK
Pagoaldea Pol. 48 z. 20180 OIARTZUN
tlf: 943491936 lehize@euskalnet.net

33 x 33 mm

33 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 19 €
Astea (6 egun): 15 €
2 aste (12 egun): 13 €
Hilabetea: (24 egun): 9 €